NEREA LOIOLA PIKAZA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2022ko urrian.

Azala eta liburuaren diseinua:
A. Beltza | Erein
Maketazioa:
A. Beltza | Erein
© Nerea Loiola Pikaza
© EREIN. Donostia 2022
ISBN: 978-84-9109-846-1
L.G.: D 1054-2022
EREIN Argitaletxea.
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

ZG

7 9 3 5 1 6 4 8 2
U K A E U K L A D

NEREA LOIOLA PIKAZA

AUKERATU ZURE ABENTURA SCAPEBOOK-A

ESKAPU LIBURUAK

erein

1. ATALA

INPUT

Nolako zortea izan duzun!

Sinetsi ezinik zabiltza oraindik. Zu aukeratu zaituzte, zu! Hamar mila eskaera baino gehiago jasotzen omen dituzte urtero...

7G UDALEKUAK

Munduko, unibertsoko, zer diot, historiako udalekurik onenak! Dibertigarrienak! Teknologikoenak! 7G teknologia garatu eta erabiltzen duten toki bakarra.

Urtero hogeita zortzi gazte baino ez dituzte hautatzen bertara joateko; eta horietako bat izango zara zu.

Egia da: lan handia egin zenuen zure hautagaitza bideoa grabatzerakoan. Hala ere, uste zenuen ikaslerik azkarrenak, nota onenak ateratzen dituztenak, soilik hartzen zituztela. Eta zu... ez zara ikasle txarra, baina ezta onenetakoa ere.

Aitortu ezazu, burutik pasa izan zaizu zu aukeratzea akats bat izan dela...

—Iritsi da taxia! –oihukatzen dizu aitak sukaldetik.

—Banoa!

4

7G udalekuetara ezin zaituzte gurasoek eraman, instalazioen kokapena sekretua baita.

Udalekuetako onarpen gutuna jaso zenuenetik konturatu zara uste baino gauza gehiago direla sekretuak han, eta uste baino gauza gutxiago dakizkizula bertan egingo duzuenari buruz. Gainera, ez duzu udaleku hauetan izan den beste inor ezagutzen.

Onarpen gutunarekin batera bidali zizuten zerrenda hartu eta, maleta oraindik zabalik, dena dagoela baieztatzen duzu.

Egongelan agurtzen dituzu gurasoak. Beheraino lagundu nahi izan dizute, taxiraino; baina zuk, ezetz. Badakizu hunkitu egingo direla ez dutelako bi astean beraien «umetxoa» ikusiko. Badakizu, halaber, hori gertatzen bada zu ere hunkitu egingo zarela; eta ez duzu nahi kalean inork zu negarrez ikusterik.

Eta bai, gurasoei malkotxo bana ikusten diezun unean zu ere negarrez hasten zara, betirako agurtzen ariko bazina ere!

Ama marmarrean ari da:

—Ez dut ulertzen zergatik ezin zaitugun guk eraman, beste udalekuetan bezala; begiraleak ezagutu, beste gurasoak agurtu... Gure umeak non dauden jakin beharko dugu, ba!

Udalekuen kokapen sekretuak larritzen zaitu apur bat zu ere, baina ez diozu ezer erantzuten.

Masailean behera irristatzen zaizkizun malkoak lehortu, eta barrenean geratzen zaizkizunak irentsiz zeharkatzen duzu etxeko atea.

Igogailua okupatuta dago eta zer egin ez dakizula geratzen zara: igogailua libratu arte itxaron edo eskaileretatik jaitsi.

ZER EGINGO DUZU?

Taxiak aspertuta alde egingo dizun beldur bazara, eta gehiago ez itxaronarazteko **ESKAILERETATIK JAITSI NAHI BADUZU,** joan zaitez 71. orrira.

Taxiak itxarongo dizula uste baduzu, eta pazientziaz hartu eta **IGOGAILUAREN ZAIN EGON NAHI BADUZU,** joan zaitez 56. orrira.

ZG
UDALEKUAK